

KONTRATAZIO-ZERRENDETAN IZENA EMATEKO JARRAIBIDE OROKORRAK (1. LEHENTASUNA) 2008KO EPEan DEITUTAKO KATEGORIETAN

IZENA EMATEKO FASEAK (LEHENTASUNAK)

Fase ezberdinetan egingo da 2011ko Kontratazio-Zerrendetarako izen-ematea (lehentasunak, jaso eta onartutako eskaeren ordena zehaztuko dutenak):

1. fasea (1. lehentasuna):

Ekainaren 8tik 28ra eman ahalko da izena. Izena emateko epea 2008ko EPEan deitutako kategorietarako da. “Izena eman dezaketen pertsonak” atalean zehazten da zeinek duten izena emateko eskubidea. Jarraibide hauetan agertzen da izena emateko modua eta bestelako egitekoak.

Izena emateko 1. lehentasuneko epea amaituta, 2. lehentasuneko epea zabalduko da, etengabe irekita dauden kategorietarako (Fakultatibo medikoak, Erizaintza, Osasun Mentaleko Erizaintza, Lan-Osasuneko Erizaintza eta Emaginak), aldi baterako kontratazio-zerrendak arautzen dituzten arau berriei jarraiturik.

2. fasea (2. lehentasuna):

Izena emateko 2. lehentasuneko epea, etengabe irekita ez dauden kategorietan, urritik aurrera zehaztuko da. Hala nahi duten eta baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiek eskatu ahalko dute zerrendetan 2. lehentasun honetan sartzea. www.osakidetza.euskadi.net. web-orriaren bidez emango da dagokion informazioa.

ESKAERAK AURKEZTEKO MODUA ETA EPEA:

Eskaera www.osakidetza.euskadi.net web-orriko aldi baterako kontratazio-programa erabilia egingo da, bertara honela iritsi ahal delarik: Profesionala/Giza-Baliabideak/Hautatze eta hornidura/Aldi baterako kontratazioa/Kontratazio-zerrendak 2011/Eskabidea.

Behin eskabidea bidalita, izena emateko epean “**Kontsulta pertsonalizatuak**” atalean sartu behar izango duzu eta, atal horren barruan, “**Curriculum**” atalean, informazioa sartu behar duzun edo/eta dokumentazioa aurkeztu behar duzun jakiteko.

2011ko kontratazio-zerrendetan **izena emateko epea 2011ko ekainaren 8an hasi eta 2011ko ekainaren 28an amaituko da, biak barne.**

2011ko KONTRATAZIO-ZERRENDAK KATEGORIA HAUETARAKO ZABALTZEN DIRA:

Orain zabaltzen diren kontratazio-zerrendak 2008ko Enpleguaren Eskaintza Publikoan deitutako kategorietarako dira, ohar hauen ondorengo koadroan agertzen direnak.

IZENA EMAN DEZAKETEN PERTSONAK

- **2008ko EPEan gai izan zirenak** kontratazio-zerrendetan izena ematen duten kategorian, oinarri orokor eta espezifikoko baldintzak betetzen badituzte.

- **2008ko kontratazio-zerrendetan onartutakoak, aurreko atalean ez daudenak, Osakidetzan lanegun bat izan badute, gutxienez, kontratazio-zerrenda berrietan izena ematen duten kategorian, 2009ko urtarrilaren 1etik 2011ko maiatzaren 9ra bitartean.**

OHARRA: 2008ko EPE gainditu izanak ez dakar berez oposaketa horren ondoriozko kontratazio-zerrendetan automatikoki onartua izatea, zeren eta, horretarako, beharrezkoa baita aldi baterako kontratazio-zerrendetan izena ematea.

ONARTUA IZATEKO DOKUMENTAZIOA, SALBUESPENAK ETA ENTREGATZEKO TOKIA

Dokumentazioa entregatu baino lehen, hona hemengo agiriak aurkezteko salbuespenetan dagoen begiratu.

Salbuespenak agiriak aurkezteari dagokionez:

1.- **Titulazio akademikoa:** Ez da aurkeztu beharko kategoria/lanpostu funtzionalerako behar den titulazioa, “Egoera”-n “Baliozkotuta” dagoela agertzen bada, curriculum-eko Prestakuntza-Titulazio Akademikoa atalean.

2.- **Lan-esperientzia:** Hurrengo kasuetan, ez da egindako zerbitzuen egiaztagiririk aurkeztu beharko:

- Osakidetzan egindako zerbitzuak, ofizioz hartuko baitira aintzat.
- Beste Administrazio Publiko batzuetan egindako zerbitzuak, Curriculum-eko “Lan-esperientzia” atalean kontratazio-zerrendetan aipatu nahi diren egindako zerbitzu-aldi guztiak agertzen badira.

Gainera, gogoratu beharrezkoa da kontratazio-zerrendetan soilik hartuko dela aintzat 2008ko EPEan, zegokion kategorian, izena emateko azken egunera arte izandako lan-esperientzia.

3.- **Euskera**-titulazioa: Ez da euskera-tituluaren fotokopia konpulsaturik aurkeztu beharko, kontratazio-zerrendetan aipatu nahi den hizkuntz eskakizuna curriculumean sartuta badago.

Aurkezteko dokumentazioa, lehen aipatutako salbuespenetan ez badago:

Aipatutako salbuespenetan ez badago, hurrengo hiru ataletan agertzen den **dokumentazioa entregatu beharko da**. Horretarako, **dokumentazioa aurkezteko eredia eskuragarri du**

oharretan, www.osakidetza.euskadi.net bertara honela iritsi ahal delarik: Profesionala/Giza-Baliabideak/Hautatze eta hornidura/Aldi baterako kontratazioa/Kontratazio-zerrendak 2011.

1.- Kontratazio-zerrendari dagokion lanpostuan jarduteko behar den **titulazioaren** edo emateko eskubideak ordaindu izana egiaztatzen duen frogagiri edo dokumentuaren **fotokopia konpultsatua edo notarioren lekukotza**. Atzerrian lortutako tituluak, dagokion Espainiako Ministerioak berauek homologatzen edo onartzen dituen erabakiarekin batera aurkeztu beharko dira.

Aintzat hartuko dira 2011ko Kontratazio-Zerrendetan izena emateko azken egunera arte (2011ko ekainaren 28a) lortutako eta egiaztatutako titulazioak.

Aplikazio informatikoan, “**Kontsulta pertsonalizatuak**” ataletik, “**curriculum**” kontsultatu beharko da.

- **Dagokion titulazioa agertzen ez bada** curriculum-eko Prestakuntza-Titulazio Akademikoa atalean, eskatzaileak **sartu beharko du** aipatutako atalean lanpostu funtzional horretan aritzeko behar den titulazioa, aplikazioak eskatzen dituen datu guztiak adierazita, eta **izena emateko epean aurkeztu beharko du**.

- Curriculum-eko Prestakuntza-Titulazio akademikoko “Egoera” atalean **agertzen ez bada titulazio hori “BALIOZKOTUTA” dagoela**, baina kontratazio-zerrendetan onartua izateko behar den titulazioa agertzen bada, **aurkeztu egin beharko da titulazio hori**, kontratazio-zerrendetan izena emateko epean.

- Onartua izateko **titulazio akademikoa “Egoera” atalean “BALIOZKOTUTA” dagoela** agertzen bada, **ez da aurkeztu behar**.

2.- **Lan-esperientzia aitortzen duen jatorrizko ziurtagiria edo horren kopia kautoa, notarioak egina**, bertan xehe adieraziz: lan-denboraldi desberdinetan izandako kategoria, lotura juridikoa eta taldea, hasierako datatik (eguna, hilabetea eta urtea) amaierako datara arte (eguna, hilabetea eta urtea). Ziurtagiri horrek dagokion administrazio publikoko organo eskudunek emana behar du izan, eta horrelakoetarako ezarrita daukan ereduari jarraitu behar dio.

Aintzat hartuko dira 2008ko EPEan, zegokion kategorian, izena emateko azken egunera arte egindako zerbitzuak (Ikusi jarraibide hauetako Eranskinean).

3.- Egiaztatutako **euskera-tituluaren fotokopia konpultsatua**. Aintzat hartuko dira 2011ko Kontratazio-Zerrendetan izena emateko azken egunera arte (2011ko ekainaren 28a) lortu eta egiaztatutako euskera-tituluak.

Dokumentazioa aurkezteko tokia:

Izena emateko eskabidea aplikazio informatikoaren bidez igortzen da; beraz, **ez da aurkeztu behar**.

Osakidetzako langilea izada, erantsi beharreko **dokumentazioa** baduzu, horretarako salbuespenen barruan ez egoteagatik, lan egiten ari zaren **Zerbitzu-Erakundeko Pertsonaleko Zuzendaritzan** aurkeztu beharko duzu.

Osakidetzan lan egiten ari ez direnen kasuan, ondoko tokietako edozeinetan aurkeztu ahalko dute dokumentazioa edo bertara igorri:

Osakidetza – Hautaketa eta Horniketarako Zerbitzua – 2011ko kontratazio-zerrendak (Alava k., 45, Vitoria-Gasteiz)

Gurutzetako Ospitalea (Gurutzeta plaza z/g, Gurutzeta-Barakaldo)
Basurtuko Ospitalea Montevideo etorbidea, 18, Bilbao)

Bilbo Eskualdea (Gran Via, 62-2.^a Bilbao)
Galdakao-Usansolo Ospitalea (Labeaga auzoa z/g Galdakao)

Donostia Ospitalea (Begiristain dk. pasealekua z/g Donostia- San Sebastián)

Bidasoako Ospitalea. (Zubieta finka, Mendelu auzoa, z/g Hondarribia)

Mendaroko Ospitalea (Mendarozabal auzoa, z/g, Mendaro)

Debagoieneko Ospitalea (Nafarroa etorbidea, 16. Arrasate-Mondragón)

Zumarragako Ospitalea. (Argixao auzoa, z/g. Zumarraga)

Lezako Ospitalea. (Logroño-Vitoria errepidea, Km. 59. Biasteri)

IZENA EMATEKO ESKABIDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

Eskabidea egoki betetzeko, hurrengo urrats hauek eman behar dituzu:

1.- Eskaera “Eskabidea” atalean egin behar da. Lehenengo, NAN/AIZ dokumentu-mota sartu behar da, zenbakia (ondoren, letra jarri, ez marrarik ez tarteko punturik jarri gabe), eta kategoria/lanpostu funtzionala. Eskabide bat bete beharko duzu izena eman nahi duzun kategoria bakoitzeko.

Eskabidea bete ahal izateko, pasahitza eskatuko zaizu. Pasahitza hau izango da:

- 2008ko EPEan izena eman bazenuen: izena emateko erabili zenuena.
- 2008ko EPEan izenik eman ez bazenuen, baina onartuta bazeunden 2008ko Kontratazio-Zerrendetan: zerrenda horietan izena emateko erabili zenuena.
- Aurrekoez baliatuta ezin baduzu zerrendetan izenik eman, baina Osakidetzan lan egin eta bertan curriculum baduzu, kontratazio-zerrendetara sartzeko pasahitza curriculumekoa izango da.
- Aurreko ataletan ez bazaude, aplikaziora lehen aldiz sartzean adieraziko zaizun pasahitza erabili beharko duzu. Pasahitza gogoratu beharko duzu etorkizunean kontsultak egin eta eskabidea aldatu ahal izateko.

Pasahitza gogoratzen ez baduzu, eskabide-formularioaren bidez eskatu ahal duzu, **sartzeko kontrolean** sartu ondoren. Kasu horretan pasahitza prozesuan emandako posta elektronikora bidaliko da. Horrela pasahitzik lortzen ez bada, edo bidalitako

pasahitzak ez badu eskabiderik egin baimentzen, 945006150 zenbakira deitu ahal duzu, eta bertan esango dizute pasahitza nola eskatu eta jaso.

2.- Eskabidearen lehenengo erlaitza bete beharko duzu (**1. urratsa: datu pertsonalak**). Eskabidean ematen dituzun helbidea, telefonoak eta posta elektronikoa baliozkotzat joko dira jakinarazpenei begira.

3.- Eskabidearen bigarren erlaitza bete beharko duzu (**2. urratsa: eskaera-datuak**), jarraian esaten den moduan:

3.1.- Egiatzatutako hizkuntz eskakizuna: hauta ezazu egiaztatuta duzun hizkuntz eskakizuna, edo adierazi ez duzula.

3.2.-Gida-baimena: ez da beharrezkoa (berariaz eskatzen den kategorietan izan ezik). Seinalatzen ez baduzu, ez duzula ulertuko da.

3.3- Plaza hutsak betetzeko zerrenda: Osasun-barruti bat, bi eta/edo hiru hautatu ahal dituzu (Araba, Bizkaia eta/edo Gipuzkoa), baina kontuan hartu, onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak argitaratu ondoren, ezin izango duzula osasun-barrutirik gehitu, baina bai murriztu (eskatutako barrutiren bat ezeztatu), Erakunde Zentralera idazki bat igorrita, kategoriako kontrataziorik eskaini aurretik.

3.4.- Ordezkapenak egiteko zerrenda: zerrenda honetan, zerbitzu-erakunde bat edo bi aukeratu ahal dituzu (Ospitaleak, Eskualdeak, Osasun Mentala, etab.). Lantoki ezberdinak dituen zerbitzu-erakunde bat hautatuz gero (Eskualdea, Osasun Mentala, Emergentziak, Transfusio eta Giza-Ehunen Euskal Zentroa, etab.), “Eskainitakoak” taulan egiaztatu ahal dituzu zentro horiek eta azpisailekapen bat egin, bost zentorekin gehienez; horretarako, sakatu “Eskainitakoak” eta aktibatu eskuineko gezia, “Hautatutakoak” atalera igaro daitezten. Azpisailekapenik egiten ez baduzu, ulertuko da zerbitzu-erakunde horretan eskainitako zentro guztiak hautatzen dituzula.

Ordezkapenatarako zerrenda honetan, gainera, zein lanaldi eskaintzea nahi duzun adierazi behar da, eta horretarako hiru aukera daude:

- edozein lanaldi-mota (kasu honetan, bai lanaldi osoa bai murriztua eskainiko zaizkizu).
- lanaldi osoa bakarrik (kasu honetan, bakarrik eskainiko zaizkizu lanaldi osoko kontratuak)
- murriztutako lanaldia bakarrik (kasu honetan, bakarrik eskainiko zaizkizu lanaldi-murrizketak betetzeko kontratuak).

3.5. “Zin edo promesa” laukia markatu behar duzu, zure datuak erabiltzeko baimena emateko.

3.6. Sakatu “**baieztatu**”, bestela zure eskabideak ez baitu ondoriorik izango. Baieztatu aurretik, egiazta ezazu zuzen bete dituzun datu pertsonalak eta eskaera-datuak, batez ere plaza hutsetarako eta ordezkapenatarako egindako hautaketetan.

3.7.- Zure eskabidea inprimatu ahal duzu, Egiatzagiria inprimatu eta gero Inprimatu sakatuta.

ESKABIDEA KONTSULTATZEA, ALDATZEA ETA EZEZTATZEA

Eskabidea beteta, kontsultatu ahal duzu zure eskaera zuzen egin den eta behar diren datuak dituen; horretarako, sakatu “Kontsulta pertsonalizatuak”, sartu zure NAN/AIZ eta pasahitza, eta sakatu Eskabidea: Kontsulta.

Kontratazio-zerrendetan izena emateko epearen barruan, eskabidean jarritako edozer aldatu ahal duzu; horretarako, sakatu “Kontsulta pertsonalizatuak”, sartu zure NAN/AIZ eta pasahitza, eta sakatu Eskabidea: Aldatzea.

Horrez gain, epe horretan, zure eskaera ezeztatu ahal duzu; horretarako, sakatu "Kontsulta pertsonalizatuak", eta Eskabidea: ezeztatzea atalean egin ahalko duzu.

WEB-ORRIKO ARGITALPENAK

Egin ondoren, jarraibide hauen hasieran aipatutako web-orrian argitaratuko dira kontratazio-zerrendak, eta baita berauei aurka egiteko erregimena ere. Web-orri honetan jakinaraziko dira hainbat pertsona interesatari eragin diezaieketen kontratazio-zerrendei lotutako alderdi guztiak. Web-orri honetako “Zerrendak” atalean jarriko da zein pertsonak eta zein ordenatan osatzen dituzten kontratazio-zerrendak.

Halaber, egokitzat jotzen den kategorietan, web-orri honetan iragarriko dira bitarteko kontratazio-eskaintza masiboak eta bertan argituko da zein pertsona sartu ahal diren horietan, kontratazio-zerrendetan dituzten puntuazio eta disponibilitateagatik. Adi egon orri horretan jartzen diren oharrei.

ARAU APLIKAGARRIAK

Aldi baterako kontratazio-zerrendei aplikatu beharreko araudia, batetik, 2011ko maiatzaren 9ko Erabakia da (2011ko ekainaren 6ko EHAA), Osakidetza Ente Publikoko Administrazio-Kontseiluarena, Osakidetzako aldi baterako kontratazio-zerrendak egin eta kudeatzeko; eta, bestetik, aplikazio orokorreko gainerako arauak.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko ekainaren 8an.

KATEGORIEN ZERRENDA - 2011 KONTRATAZIO-ZERRENDAK -1. LEHENTASUN

Osakidetza Webgunean Inskripzioak egingo dira: <http://www.osakidetza.euskadi.net>

Norabidea: Profesionalak/Giza Baliabideak/Hautatze eta Hornidura/Aldi Baterako Kontratazioa/Kontratazio-zerrendak 2011/Eskabidea

Inskripzioak egiteko epea: 2011eko ekainaren 8tik 28ra

FAKULTATIBO MEDIKO ETA TEKNIKOAK	egun azkena esperientzia kontuan hartzeko
1 FAK. ESP. ALERGOLOGIAKO MEDIKUA	2009/02/03
2 FAK. ESP. ANATOMIA PATOLOGIKOKO MEDIKUA	2009/02/03
3 FAK. ESP. ANESTESIOLOGIA ETA BIZKORKETAKO MEDIKUA	2009/02/03
4 FAK.ESP.ANGIOLOGIA ETA HODIOETAKO KIRURG.MEDIKUA	2009/06/16
5 FAK. ESP. APARATU DIGESTIBOKO MEDIKUA	2009/02/03
6 FAK. ESP. KARDIOLOGIAKO MEDIKUA	2009/02/03
7 FAK. ESP. BIHOTZ-HODIETAKO KIRURGIAKO MEDIKU ESPEZIALISTA	2009/02/03
8 FAK. ESP. KIRURGIA OROK. ETA APARATU DIGESTIBOKO MEDIKUA	2009/02/03
9 FAK. ESP. AHO ETA AURPEGI-MASAILAETAKO KIRU. MED.	2009/02/03
10 FAK. ESP. KIRURGIA ORTOPEDIKOA ETA TRAUM. MEDIK.	2009/02/03
11 FAK. ESP. PEDIATRIA KIRURGIKOKO MEDIKUA	2009/02/03
12 FAK. ESP. KIRURGIA PLASTIKOA, ESTETIKOA ETA KONPONTZAILEKO MEDIKUA	2009/02/03
13 FAK. ESP. TORAXEKO KIRURGIAKO MEDIKUA	2009/02/03
14 FAK. ESP. ZAINKETA ARINGARRIETAKO MEDIKUA	2009/02/03
15 FAK. ESP. FAMILIAKO MEDIKUA (LMT)	2008/12/23
16 FAK. ESP. DERMA. MEDIKO-KIRURGI. ETA BENEREOLOGIAKO MEDIKUA	2009/02/03
17 FAK. ESP. LARRIALDIETAKO MEDIKUA	2009/02/08
18 FAK. ESP. ENDOKRINOLOGIA ETA NUTRIZIOKO MEDIKUA	2009/02/03
19 FAK. ESP. GAIXOTASUN INFEKTSIOSOETAKO MEDIKUA	2009/02/03
20 FAK. ESP. EPIDEMIOLOGIA KLINIKOKO MEDIKUA	2009/02/08
21 FAK. ESP. HEMATOLOGIA ETA HEMOTERAPIAKO MEDIKUA	2009/02/03
22 FAK. ESP. ETXEKO OSPITALIZAZIORAKO MEDIKUA	2009/02/08
23 FAK. ESP. LANEKO MEDIKUNTZAKO MEDIKUA	2008/12/23
24 FAK. ESP. MEDIKUNTZA FISIKOA ETA ERREHABILITAZIOA	2009/02/03
25 FAK. ESP. MEDIKUNTZA INTENTSIBOKO MEDIKUA	2009/02/03
26 FAK. ESP. BARNE MEDIKUNTZAKO MEDIKUA	2009/02/03
27 FAK. ESP. MEDIKUNTZA NUKLEARRA	2009/02/03
28 FAK. ESP. MEDIKUNTZA PREBENTIBO ETA OSASUN PUBLIKOKO MEDIKUA	2009/02/03

KATEGORIEN ZERRENDA - 2011 KONTRATAZIO-ZERRENDAK -1. LEHENTASUN

Osakidetza Webgunean Inskripzioak egingo dira: <http://www.osakidetza.euskadi.net>

Norabidea: Profesionalak/Giza Baliabideak/Hautatze eta Hornidura/Aldi Baterako Kontratazioa/Kontratazio-zerrendak 2011/Eskabidea

Inskripzioak egiteko epea: 2011eko ekainaren 8tik 28ra

29	FAK. ESP. NEFROLOGIAKO MEDIKUA	2009/02/03
30	FAK. ESP. NEUMOLOGIAKO MEDIKUA	2009/02/03
31	FAK. ESP. NEUROKIRURGIAKO MEDIKUA	2009/02/03
32	FAK. ESP. NEUROLOGIAKO MEDIKUA	2009/02/03
33	FAK. ESP. OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIAKO MEDIKUA	2009/02/03
34	FAK. ESP. OFTALMOLOGIAKO MEDIKUA	2009/02/03
35	FAK. ESP. ONKOLOGIA MEDIKUKO MEDIKUA	2009/02/03
36	FAK. ESP. OTORRINOLARINGOLOGIAKO MEDIKUA	2009/02/03
37	FAK. ESP. PEDIATRIA MEDIKUA (LMT)	2008/12/23
38	FAK. ESP. OSPITALE-PEDIATRIAKO MEDIKUA	2009/02/03
39	FAK. ESP. PSIQUIATRIAKO MEDIKUA	2009/02/03
40	FAK. ESP. ERRADIODIAGNOSTIKOKO MEDIKUA	2009/02/03
41	FAK. ESP. GSU-KO MEDIKUA	2009/02/08
42	FAK. ESP. OSPITALEKO LARRIAIAIETAKO MEDIKUA	2008/12/23
43	FAK. ESP. UROLOGIAKO MEDIKUA	2009/02/03
44	FAK. ESP. ANALISI KLINIKOEN MEDIKU TEKNIKARIA	2009/02/08
45	FAK. ESP. BIOKIMIKA KLINIKOKO MEDIKU TEKNIKARIA	2009/02/09
46	FAK. ESP. MIKROBIOLOGIA ETA PARASITOLOGIAKO MEDIKU TEKNIKARIA	2009/02/08
47	FAK. ESP. OSPITALEKO ERRADIOFISIKAKO MEDIKU TEKNIKARIA	2009/02/08
48	FAK. ESP. IKERKUNTZAKO UNITATEKO MEDIKU TEKNIKARIA	2009/02/09
49	FAK. ESP. OSPITALE-FARMAZIAKO TEKNIKARIA	2009/02/08
50	FAK. ESP. PSIKOLOGO-KLINIKO TEKNIKARIA	2009/02/09
GOI-MAILAKO TEKNIKOAK		egun azkena esperientzia kontuan hartzeko
1	INFORMATIKARIA	2009/02/09
2	GOI-MAILAKO TITULUDUNA-ANTOLAKUNTZAKO TEK.	2009/02/09
3	GOI MAILAKO TITULUDUNA-SEGURTASUN ETA HIGIENEAREN PREBENTZIORAKO TEK.	2009/02/09
DIPLOMATU SANITARIOAK		egun azkena esperientzia kontuan hartzeko
1	ERIZAINA	2008/12/23
2	OSASUN MENTALEKO ERIZAINA	2008/12/23

KATEGORIEN ZERRENDA - 2011 KONTRATAZIO-ZERRENDAK -1. LEHENTASUN

Osakidetza Webgunean Inskripzioak egingo dira: <http://www.osakidetza.euskadi.net>

Norabidea: Profesionalak/Giza Baliabideak/Hautatze eta Hornidura/Aldi Baterako Kontratazioa/Kontratazio-zerrendak 2011/Eskabidea

Inskripzioak egiteko epea: 2011eko ekainaren 8tik 28ra

3	FISIOTERAPEUTA	2008/12/23
4	EMAGINA	2008/12/23
ERDI-MAILAKO TEKNIKOAK		egun azkena esperientzia kontuan hartzeko
1	INGENIARI TEKNIKOA	2009/02/09
2	PREBENTZIOKO ERDI-MAILAKO TITULUA	2009/02/09
TEKNIKO ESPEZIALISTA SANITARIOAK		egun azkena esperientzia kontuan hartzeko
1	ANATOMIA PATOLOGIAKOA ETA ZITOLOGIAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	2008/12/23
2	LABORATEGIKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	2008/12/23
3	ERRADIODIAGNOSTIKOKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	2008/12/23
4	ERRADIOTERAPIAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	2008/12/23
ADMINISTRAZIOKO TEKNIKO ESPEZIALISTAK		egun azkena esperientzia kontuan hartzeko
1	ADMINISTRARIA	2008/12/23
TEKNIKO ESPEZIALISTA PROFESIONALAK		egun azkena esperientzia kontuan hartzeko
1	SUKALDARIA	2008/12/23
TEKNIKO LAGUNTZAILE SANITARIOAK		egun azkena esperientzia kontuan hartzeko
1	ERIZAINZAKO LAGUNTZAILEA	2008/12/23
2	FARMAZIAKO LAGUNTZAILEA	2008/12/23
ADMINISTRAZIOKO TEKNIKO LAGUNTZAILEAK		egun azkena esperientzia kontuan hartzeko
1	ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	2008/12/23
TEKNIKO LAGUNTZAILE PROFESIONALAK		egun azkena esperientzia kontuan hartzeko
1	GIDARI OFIZIALA	2008/12/23
2	MANTENIMENDU OFIZIALA	2008/12/23
MENPEKOAK / OPERARIOAK		egun azkena esperientzia kontuan hartzeko
1	ZELARIA	2008/12/23
2	ZERBITZUETAKO LANGILEA	2008/12/23